

Bizkaiko Foru Aldundiaren /2018 Foru Dekretu Proiektua, ren (e)koa. Honen bidez, zenbait aldaketa egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudian eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduan.

Foru dekretu honen bidez, zenbait aldaketa egiten zaizkie Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiari eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduari.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiari dagokionez, berrikusi eta eguneratu egin da salgaien errepidezko garraioaren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatzeko portzentajea, amortizazioak, narriaduragatiko galerak eta justifikatzen zailak diren gastuak direla eta.

Gauzazko errentei dagokienez, zehazten da gauzazko ordainsariak ez diren langileen eguneratze, gaikuntza eta birziklapenerako azterlanen gastuetan sartzen direla enplegatzailea ez diren beste enpresa edo entitate espezializatuek emandakoak ere,

Proyecto de Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia /2018, de de , por el que se introducen modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades.

El presente Decreto Foral introduce determinadas modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el del Impuesto sobre Sociedades.

En relación con el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, se revisa y actualiza el porcentaje aplicable a las actividades de transporte de mercancías por carretera para la determinación del rendimiento neto mediante la modalidad simplificada del método de estimación directa en concepto de amortizaciones, pérdidas por deterioro y gastos de difícil justificación.

En lo que se refiere a las rentas en especie, se especifica que dentro de los gastos de estudio para la actualización, capacitación y reciclaje del personal que no constituyen retribución en especie, se encuentran también aquellos prestados por otras



betiere, enpresa edo entitate horiek merkaturatzen dituzten produktuekin jarduteko beharrezkoa bada langileek behar bezalako prestakuntza izatea.

Egoerarik ahulenean dauden kolektiboei laguntzeko, zenbait doikuntza egin dira ohiko etxebizitzaren kontzeptuan, ondoren zehazten diren bezalako kasuetan, besteak beste, zergadunaren ohiko etxebizitza denak izaera hori galdu ez dezan.

Doikuntza horiekin, kontuan hartu nahi dira egiaztatutako mendekotasun-egoeran dauden edo gaixotasun larria duten pertsonen beren ohiko etxebizitzetatik familiartekoen etxeetara edo egoitzetara joan beharra izaten duten egoerak, salbuespena aplikatzeko beren ohiko etxebizitza izan denaren kostu bidezko eskualdatzeagatik eskuratutako ondare-irabaziak direla-eta. Betiere, adierazitako arrazoiak direla-eta, aldi horretan ohiko etxebizitzan bizi ez bada, edo etxebizitza horri ez bazaio bestelako erabilerarik eman.

Harpidetza-eskubideei dagokienez, zehaztaperen teknikoak sartu dira, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera ezarrita dagoen

empresas o entidades especializadas distintas del empleador o empleadora, siempre que dichas empresas o entidades comercialicen productos para los que resulte necesario disponer de una adecuada formación por parte de la persona trabajadora.

En aras a favorecer a colectivos de mayor vulnerabilidad, se introducen los ajustes necesarios en el concepto de vivienda habitual, de tal forma que en algunos supuestos como los señalados a continuación la que fuera vivienda habitual del o de la contribuyente no pierda tal carácter.

Así se trata de dar cabida a aquellos casos en que una persona en situación de dependencia o enfermedad grave acreditada se vea obligada a trasladarse de su residencia habitual para ser atendida en el domicilio de sus familiares o en centros residenciales, a efectos de aplicar la exención por las ganancias patrimoniales obtenidas por la transmisión onerosa de su vivienda habitual, siempre y cuando durante el periodo que por las razones expuestas no resida en la misma no haya sido objeto de utilización distinta.

En referencia a los derechos de suscripción se introducen precisiones de carácter técnico en relación con la obligación de



atxikipena egiteko betebeharrari dagokionez. Zehazki, araudiaren testuari honako hau gehitu zaio: atxikipena edo sarrera egiteko betebeharra erakunde gordailuzainarena bada, eskualdaketaren zenbatekoa zergadunari emateko jasotzen den egunean egingo da atxikipena, zenbateko horren gainean.

Halaber aldatu da ekarpenak itzultzea xede duten kapital-murrizketako eragiketak edo jaulkipen-primaren banaketakoak egiteagatik eragiketa horietan parte hartzen duten subjektu pasiboei dagokien informazioa emateko betebeharra. Subjektu pasibo horiei ezartzen zaien informazioa emateko betebeharra osagarria eta independentea da, eragiketak egiten dituzten entitateek eman beharra duten informazioarekiko, eta azken horien esku dagoen informazioa mugatuta dago: eragiketa horiek egin dituzten entitateen identifikazio-datuak eta eragiketa horiek egin diren datak.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduari dagokionez jarraian aipatuko diren aldaketak egiten dira.

Atxikipenen arloan, beste salbuespen bat ezarri da pentsio-funts irekiek ordaindutako kopuruen atxikipena egiteko betebeharrari

retener establecida desde el 1 de enero de 2017, en concreto se añade en el texto reglamentario que en el supuesto de que la obligada a retener o ingresar sea la entidad depositaria, la retención se practicará en la fecha en que reciba el importe de la transmisión para su entrega al o a la contribuyente y sobre dicho importe.

Asimismo, se modifica la obligación de suministro de información por operaciones de reducción de capital con devolución de aportaciones o de distribución de prima de emisión, correspondiente a los sujetos pasivos que intervengan en dichas operaciones, configurándose su obligación de información como adicional e independiente de la que corresponde suministrar a las entidades que realizan las operaciones, y limitada a la información en poder de estos últimos, esto es, los datos identificativos de las entidades que han llevado a cabo estas operaciones y las fechas en que se han producido las mismas.

Por lo que se refiere al Reglamento del Impuesto sobre Sociedades se introducen las modificaciones que a continuación se mencionan.

En materia de retenciones se establece un nuevo supuesto de excepción a la obligación de retener en relación con las cantidades



dagokionez, pentsio-funts edo pentsio-plan inbertsiogileen partaidetzen itzulketa eta mobilizazioaren ondorioz. Gainera, beste salbuespen-kasu bat arautu da, kontrako alderdi zentralek baloreen mailegu-eragiketengatik jasotzen dituzten ordainsariak eta eskubide ekonomikoen konpentsazioak direla-eta duten atxikitzeko betebeharrari dagokionez.

Adierazi behar da foru dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

satisfechas por los fondos de pensiones abiertos, como consecuencia del reintegro o movilización de participaciones de los fondos de pensiones inversores o de los planes de pensiones inversores. Además se regula otro supuesto de excepción a la obligación de retener en relación con las remuneraciones y compensaciones por derechos económicos que perciban las entidades de contrapartida central por las operaciones de préstamo de valores.

Se debe señalar que la tramitación de este Decreto Foral se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

Asimismo se han observado los trámites previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.



Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2018koaren(e)ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral en su reunión de de de 2018,

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

1. artikulua. *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia aldatzea; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.*

Artículo 1. *Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 47/2014, de 8 de abril.*

Bat. 12. artikulua 1. zenbakiko d) eta k) letrak aldatzen dira, eta edukirik gabe uzten da zenbaki horretako g) letra. Honela idatzita geratzen dira letra horiek:

Uno. Se modifican las letras d) y k) del apartado 1 del artículo 12 y se deja sin contenido la letra g) mismo apartado, que quedarán redactadas con el contenido siguiente:

« d) 30/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen».

“ d) Decreto del Gobierno Vasco 30/2015, de 17 de marzo, de las ayudas económicas de apoyo a las familias con hijos e hijas a cargo.”

«k) Bizkaiko Foru Aldundiaren 113/2016 Foru Dekretua, ekainaren 21ekoa, mendetasun-egoeran dauden adinekoak eguneko zentroetan sartzeko sistema eta dagozkien banakako

“k) Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 113/2016, de 21 de junio, por el que se regula el acceso a centros de día para personas mayores en situación de dependencia y sus ayudas económicas



laguntza ekonomikoak arautzen dituen»

individuales”

Bi. 35. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Dos. Se modifica el artículo 35, que quedará redactado con el contenido siguiente:

«35. artikulua. Salgaien errepidezko garraioaren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua erabiliz kalkulatzeko arau bereziak.

“Artículo 35. Reglas especiales para la determinación del rendimiento neto mediante la modalidad simplificada del método de estimación directa aplicable a las actividades de transporte de mercancías por carretera.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauko 28. artikulua 2. zenbakian ezartzen dena garatuz, salgaien errepidezko garraioaren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua erabiliz kalkulatzeko % 55 izango da 28. artikuluko 1. zenbakiko b) letran aipatzen den portzentajea.

En desarrollo de lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 28 de la Norma Foral del Impuesto, para la determinación del rendimiento neto mediante la modalidad simplificada del método de estimación directa de las actividades de transporte de mercancías por carretera, el porcentaje a que se refiere la letra b) del apartado 1 del citado artículo 28 será del 55 por ciento.

Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, salgaien errepidezko garraiotzat joko dira apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arauemaileak onartzen dituen Ekonomi Jardueren gaineko Zergako tarifen 722 epigrafean zehazten direnak.

A efectos de la aplicación de lo dispuesto en este artículo se entenderán por actividades de transporte de mercancías por carretera las incluidas en el epígrafe 722 de las Tarifas del Impuesto sobre Actividades Económicas, aprobadas mediante el Decreto Foral Normativo 1/1991, de 30 de abril.”



Hirugarrena. 55. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«55. artikulua. Langileak eguneratzeko, gaitzeko eta erreziklatzeko erabiltzen diren kopuruak.

Zergari buruzko Foru Arauko 17. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letran ezarritakoari dagokionez, ikasketak ez dira gauzako ordainsaritzat hartuko, baldin eta ikasketok xedatzen badituzte erakunde, enpresa edota enplegatzaileek, eta eurek zuzenean edo zeharka finantzatzen badituzte, langileak eguneratu, gaitu edota birziklatzeko; ikasketok nahitaezkoak badira, jarduerak egiteko edo lanpostuen ezaugarriengatik, eta hori hala izango da, lana benetan beste pertsona edo erakunde espezializatu batzuek egiten badute ere. Kasu horietan, joan-etorri, mantenu eta egonaldi gastuetarako kopuruei dagokienez araudi honetako 13. artikuluan xedatutakoa izango da aginduzkoa.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da ikasketak enplegatzaileak zeharka xedatu eta finantzatu dituela, betiere, enpresa edo entitate horiek merkaturatzen dituzten produktuekin jarduteko beharrezkoa bada langileek behar bezalako prestakuntza izatea, eta

Tres. Se modifica el artículo 55, que queda redactado con el contenido siguiente:

“Artículo 55. Cantidades destinadas a la actualización, la capacitación y reciclaje del personal.

No tendrán la consideración de retribuciones en especie, a efectos de lo previsto en la letra c) del apartado 2 del artículo 17 de la Norma Foral del Impuesto, los estudios dispuestos por Instituciones, empresas o empleadores y financiados directamente o indirectamente por ellos para la actualización, capacitación o reciclaje de su personal, cuando vengan exigidos por el desarrollo de sus actividades o las características de los puestos de trabajo, incluso cuando su prestación efectiva se efectúe por otras personas o entidades especializadas. En estos casos, las asignaciones para gastos de locomoción, manutención y estancia se registrarán por lo previsto en el artículo 13 de este Reglamento.

A efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, se entenderá que los estudios han sido dispuestos y financiados indirectamente por el empleador cuando se financien por otras empresas o entidades que comercialicen productos para los que resulte necesario disponer de una adecuada



enplegatzailleak parte-hartzeko baimena ematen badu».

Lau. 67 artikuluko 4. zenbakia aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«4. Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko b) eta c) letretan eta 49. artikuluan ezarritako salbuespenak aplikatzeko, ez beste ezertarako, ondoko kasuan zergadunak ohiko etxebizitza eskualdatu duela pentsatuko da: artikuluan honetan ezarritakoaren arabera eraikina une horretan beraren ohiko etxebizitza denean edo, bestela, eskualdatu aurreko bi urteetan ohikoa izateari utzi dionean.

Era berean, Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko b) eta c) letretan ezarritako salbuespenak aplikatzeko, ez beste ezertarako, zergaduna mendekotasun-egoeran badago, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatutakoaren arabera, edo gaixotasun larria duela egiaztatzen badu, eta bere ohiko etxebizitza aldatu beharra badu, harekin alboko lerroan edo zuzenekoan laugarren gradura arteko odolkidetasun bidezko ahaide

formación por parte del trabajador, siempre que el empleador autorice tal participación.”

Cuatro. Se modifica el apartado 4 del artículo 67, que quedará redactado con el siguiente contenido:

“4. A los exclusivos efectos de la aplicación de las exenciones previstas en las letras b) y c) del artículo 42 y en el artículo 49 de la Norma Foral del Impuesto, se entenderá que el contribuyente está transmitiendo su vivienda habitual cuando, con arreglo a lo dispuesto en este artículo, dicha edificación constituya su vivienda habitual en ese momento o hubiera tenido tal consideración hasta cualquier día de los dos años anteriores a la fecha de transmisión.

Asimismo, a los exclusivos efectos de la aplicación de las exenciones previstas en las letras b) y c) del artículo 42 de la Norma Foral del Impuesto, en el supuesto de que el o la contribuyente este en situación de dependencia de conformidad con la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en situación de Dependencia, o acredite enfermedad grave, en caso de verse obligado a cambiar su residencia habitual, para ser cuidado o cuidada por otra persona unida por vínculo de parentesco, en



direnek zaintzeko, haien ohiko etxebizitzan, edo egoitza batera joan beharra badu, ulertuko da lekualdatzea egin aurretik ohiko etxebizitza zuen higiezinak izaera hori mantenduko duela, adierazitako arrazoiak direla-eta; betiere, higiezin horri ez bazaio bestelako erabilerarik ematen.

línea directa o colateral, consanguínea hasta el cuarto grado inclusive, en la residencia habitual de éste o ésta, o al traslado a un centro residencial, se entenderá que el inmueble en el que tenía fijada su residencia habitual con anterioridad al desplazamiento por las razones expuestas mantendrá el carácter de vivienda habitual, siempre y cuando dicho inmueble no sea objeto de otra utilización distinta.”

Bost. 95. artikuluko 2. zenbakia aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Cinco. Se modifica el apartado 2 del artículo 95, que quedará redactado con el contenido siguiente:

«2. Harpidetza-eskubideak eskualdatuz lortutako ondare-irabazien gaineko atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa irabaziaren 100eko 19 izango da. Edo, betebehari hori entitate gordailuzaina bada, entitate horrek zergadunari emateko jasotzen duen zenbatekoaren 100eko 19.

“2. La retención e ingreso a cuenta a practicar sobre las ganancias patrimoniales derivadas de la transmisión de derechos de suscripción será del 19 por 100 sobre el importe obtenido en la operación o, en el caso de que la obligada a practicarla sea la entidad depositaria, sobre el importe recibido por ésta para su entrega al o a la contribuyente.”

Sei. 97. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Seis. Se modifica el artículo 97, que quedará redactado con el contenido siguiente:

«97. artikulua. Atxikipenak egin beharra sortzea.

“Artículo 97. Nacimiento de la obligación de retener.



«Atxikitzeke betebeharra sortuko da edo inbertsio kolektiboko erakundeen akzioen edo partaidetzen eskualdaketa edo itzulketa formalizatzen den unean edo harpidetza-eskubideen eskualdaketa formalizatzen den unean, kobratzeko itundutako baldintzak edozein direla ere.

Harpidetza-eskubideen eskualdaketari dagokionez, betebeharrak hori erakunde gordailuzainarena bada, hark eskualdaketaren zenbatekoa zergadunari emateko jasotzen duen egunean egingo da atxikipena».

Zazpi. 117. artikuluko 12. zenbakiko azken paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Aurreko paragrafoetan aipatzen diren entitateek aurkeztu behar duten aitopren informatiboa gorabehera, ekarpenak itzultzea xede duten kapital-murrizketako eragiketetan edo jaulkipen-primaren banaketakoetan parte hartzen duten subjektuek Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak arautu dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren 53. artikuluan xedatzen den

La obligación de retener nacerá en el momento en que se formalice la transmisión o reembolso de las acciones o participaciones de instituciones de inversión colectiva, y en el momento en que se formalice la transmisión de los derechos de suscripción, cualesquiera que sean las condiciones de cobro pactadas.

En la transmisión de los derechos de suscripción, cuando la mencionada obligación recaiga en la entidad depositaria, ésta practicará la retención o ingreso a cuenta en la fecha en que reciba el importe de la transmisión para su entrega al o la contribuyente.”

Siete. Se modifica el último párrafo del apartado 12 del artículo 117, que quedará redactado con el contenido siguiente:

“Adicionalmente, con independencia de la correspondiente declaración informativa que deben presentar las entidades a que se refieren los párrafos anteriores, los sujetos obligados a presentar la declaración informativa a que se refiere el artículo 53 del Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia aprobado por el Decreto Foral 205/2008, de 22 de diciembre, que intervengan en las



informazio-aitorpena aurkeztu behar dute, eta, gainera, eragiketa horiek egin dituzten entitateen identifikazio-datuak eta eragiketa horiek egin diren datak sartu behar dituzte informazio-aitorpen horretan. Informazio-aitorpena hurrengo urteko urtarrilaren 1etik eta 31ra bitartean aurkeztu behar da, eta aurreko urteari dagokion informazioa eman behar du».

2. artikulua. *Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretua.*

Bat. 35. artikuluari 4. zenbakia kentzen zaio, eta oraingo 5. eta 6. zenbakiak 4. eta 5. zenbaki bihurtzen dira, hurrenez hurren.

Bi. 51. artikulua 22. eta 27. zenbakiak aldatzen dira, eta honela idatzita geratzen dira:

«22. Aseguru-erakundeek pentsio-planak aseguratzearen pentsio-funtsei ordaintzen dizkieten zenbatekoak.

Ez dago atxikipena egiteko betebeharririk

operaciones de reducción de capital con devolución de aportaciones o de distribución de prima de emisión, deberán incluir en esta declaración informativa los datos identificativos de las entidades que han llevado a cabo estas operaciones y las fechas en que se han producido las mismas. La presentación de esta declaración informativa se realizará entre el 1 y el 31 de enero del año inmediato siguiente, en relación con la información correspondiente al año inmediato anterior.”

Artículo 2. *Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 203/2013, de 23 de diciembre.*

Uno. Se suprime el apartado 4 del artículo 35, renumerándose los apartados 5 y 6 como apartados 4 y 5 respectivamente.

Dos. Se modifican los apartados 22 y 27 del artículo 51, que quedarán redactados con el contenido siguiente:

“22. Las cantidades satisfechas por las entidades aseguradoras a los fondos de pensiones como consecuencia del aseguramiento de planes de pensiones.

Tampoco existirá obligación de retener



pentsio-funts edo pentsio-plan inbertsiogileen partaidetzen itzulketa eta mobilizazioa dela-eta pentsio-funts irekiek ordaindutako kopuruengatik, Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen)».

«27. Kontrako alderdi zentralek urriaren 2ko 878/2015 Errege Dekretuaren 82. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoa aplikatuz egindako balore-maileguengatik jasotzen dituzten ordainsariak eta eskubide ekonomikoen konpentsazioak (878/2015 Errege Dekretua, urriaren 2koa, kontuko idatzohar bidez adierazitako balore negoziagarrien konpentsazio, likidazio eta erregistroari buruzkoa, baloreen gordailuzain zentralen eta kontrapartida zentraleko erakundeen araubide juridikoari buruzkoa, eta bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzeko onartutako baloreen jaulkitzaileen gardentasun-eskakizunei buruzkoa).

Era berean, kontrako alderdi zentralek ez dute atxikipena egiteko betebeharririk izango, aurreko paragrafoan aipaturiko baloreen mailegu-eragiketak direla-eta ordaintzen

respecto de las cantidades satisfechas por los fondos de pensiones abiertos como consecuencia del reintegro o movilización de participaciones de los fondos de pensiones inversores o de los planes de pensiones inversores, de acuerdo con lo establecido en el texto refundido de la Ley de Regulación de los Planes y Fondos de Pensiones, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2002, de 29 de noviembre, y en sus normas de desarrollo.”

“27. Las remuneraciones y compensaciones por derechos económicos que perciban las entidades de contrapartida central por las operaciones de préstamo de valores realizadas en aplicación de lo previsto en el apartado 2 del artículo 82 del Real Decreto 878/2015, de 2 de octubre, sobre compensación, liquidación y registro de valores negociables representados mediante anotaciones en cuenta, sobre el régimen jurídico de los depositarios centrales de valores y de las entidades de contrapartida central y sobre requisitos de transparencia de los emisores de valores admitidos a negociación en un mercado secundario oficial.

Asimismo, las entidades de contrapartida central tampoco estarán obligadas a practicar retención por las remuneraciones y compensaciones por derechos económicos



dituzten ordainsari eta eskubide ekonomikoei dagokienez ere.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, dagokien atxikipena egin beharko zaie errenta horiei, errenta horien onuradunaren zerga pertsonalari buruzko arautegian ezarritakoarekin bat etorriz, eta, atxikipena egin behar bada, ordainketan bitartekotza egiten duen erakundeak egin beharko du; ondorioz, eragiketa hori ez da hartuko ordainketa-bitartekaritza soiltzat».

Azken xedapenetatik lehena. *Arauk emateko gaikuntza.*

Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetatik bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta ondoren adierazten diren ondorioak izango ditu:

que abonen como consecuencia de las operaciones de préstamo de valores a las que se refiere el párrafo anterior.

Lo establecido en el párrafo anterior se entenderá sin perjuicio de la sujeción de las mencionadas rentas a la retención que corresponda, de acuerdo con la normativa reguladora del correspondiente impuesto personal del beneficiario de dichas rentas, la cual, cuando proceda, deberá practicar la entidad participante que intermedie en su pago a aquél, a cuyo efecto no se entenderá que efectúa una simple mediación de pago.”

Disposición final primera. *Habilitación normativa.*

Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia y tendrá los efectos que se indican a continuación:



- 1. artikularen bi zenbakian ezarritakoak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

- 1. artikuluan ezarritakoak, bi zenbakian ezarritakoak salbu, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

- 2. artikulua 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak.

Bilbon, 2018....(e)ko(a)ren(e)(a)n

- Lo dispuesto en el apartado Dos del artículo 1, tendrá efectos desde el 1 de enero de 2017.

- Lo dispuesto en el artículo 1 a excepción de su apartado Dos, tendrá efectos desde el 1 de enero de 2018.

- Lo dispuesto en el artículo 2, tendrá efectos para los periodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2018.

En Bilbao, a de de 2018.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua
El diputado foral de Hacienda y Finanzas

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia
El Diputado General

UNAI REMENTERIA MAIZ

